

**20**  
**09**

# KUDEAKETA TXOSTENA

[www.geroa.es](http://www.geroa.es)

Lugaritz, 27 - 20018 Donostia T. 943 31 70 22 - F. 943 31 72 80



# Kudeaketa Txostena 09

Bazkide agurgarriak:

Ekitaldi guztietan bezala, GEROA PENTSIOAK BGAeko datu adierazgarrienak laburbildurik azaltzen dira, ekarpen, prestazio eta erakundeko garapenaren ohiko atalak, hain zuzen ere, garrantasun eta kalitate osoko informazioa izan dezazuen, entitateko garapena balioztatu ahal izateko.

2009ko ekitaldian lau sektorek; Metalgintza (+%0,30), Eraikuntza (+%0,30), Bulego eta despatxoak (+%0,20) eta Merkataritza orokorrak (+%0,20), gehitu dituzte ekarpen ehunekoak.

Illo berean, Gipuzkoan hitzarmen sektorialarik ez duten zazpi enpresek %0,17 eta %0,97 artean gehitu dituzte ekarpenak;

Grupo Legaia, Grupo Savera, Federación de EPSV, Zahor, Kateak Lantegiak, Manufacturas Oria eta Asedir Gestión, hauek Gipuzkoako metalgintza-industriaren ekarpen mailak gaituzten ez dutenez.

Gainera, Gipuzkoan hitzarmen sektorialarik ez duten hiru enpresa berriak barneratu dira: Bidelan (%4,60), Talleres Protegidus Gureak (%0,40) eta Kemen Manguitos (%4,30).

Sektore bakoitzaren ekarpen ehunekoak desberdinak dira, baina beti langilearen oinarritzko kontingentzi arruntari dagokio. Ekitaldi honetan honako taulan ezartzen diren ehunekoak aplikatu dira:

Sektoreak	2009ko guztizko ekarpenaren %	Sektoreak	2009ko guztizko ekarpenaren %
Metala	<b>%4,60</b> %0,30ko hazkundea	Larru arloko merkataritza	<b>%1,60</b> Aldaketarik gabe
Zeramika	<b>%3,50</b> Aldaketarik gabe	Metal arloko merkataritza	<b>%2,00</b> Aldaketarik gabe
Zuraren industria	<b>%2,00</b> Aldaketarik gabe	Garbiketak	<b>%2,50</b> Aldaketarik gabe
Garraio-kudeatzaileak	<b>%3,00</b> Aldaketarik gabe	Hornitegiak	<b>%4,00</b> Aldaketarik gabe
Okindegiak	<b>%1,20</b> Aldaketarik gabe	Fruten handizkariak	<b>%2,50</b> Aldaketarik gabe
Beira	<b>%3,50</b> Aldaketarik gabe	Errepid. zeharreko garraioa	<b>%1,50</b> Aldaketarik gabe
Eraikuntza	<b>%4,00</b> %0,30ko hazkundea	Lokalak, ikusk. eta kirola	<b>%1,00</b> Aldaketarik gabe
Papera	<b>%1,20</b> Aldaketarik gabe	Bulego eta despatxoak	<b>%0,40</b> %0,20ko hazkundea
Altzariak eta osagarriak	<b>%1,00</b> Aldaketarik gabe	Merkataritza orokorra	<b>%0,40</b> %0,20ko hazkundea
Ehun arloko merkataritza	<b>%1,60</b> Aldaketarik gabe		

2009ko abenduaren 31n ekarpen gordinen guztizko zenbatekoa sortzapean irizpidearen arabera 92,5 milioi eurokoa da, hau da, % 2,88 jaitsi da aurreko urteko datuei dagokionez.

Urtearen amaieran, 128.982 Bazkide Arruntek egin dituzte ekarpenak gutxienez aldi batean; hortaz, aurreko ekitaldiarekiko % 9,48ko beherakada eman da.

Era berean, ekitaldian zehar gutxienez ekarpen bat egin duten Bazkide Babesleak 12.109 dira, hau da, aurreko ekitaldian baino % 3,63 gutxiago.

Erakundearen ondarea, 2009ko abenduaren 31an, 873 milioi eurokoa da (kopuru horretan ez dira barne hartzen ez mutualitate-funtsa, ezta biziarteko errentetarako hartutako konpromisoen ondoriozko desbideratze posibleak estaltzeko eraturako hornidurak ere), aurreko ekitaldiarekiko % 18,49ko gehikuntza izan duelarik.

Urteko errentagarritasun netoa %8,32an kokatzen da; hau da, Erakundearen sorreratik %6,31ko balio handitze konposatuko tasa lortu da. Entitateko errentagarritasunaren helburua 2009an izandako %0,8ko inflazioa gaituztea zen.

Partaidetza Balioa, 1996ko Otsailaren 23an 6,01€ izatetik, 2009ko Abenduaren 31an 14,037741 izatera aldatu da.

Ekitaldiko funtzionamenduko eta amortizazioko gastuak 1,754 milioi eurokoak dira. Langileek bere gain hartutako gastuen ehunekoa kudeatutako batez besteko ondarearen gaineko %0,219an kokatu da. Inbertsio kolektiboko erakundeetako eta arrisku-kapitaleko entitateetako inbertsioen ondoriozko komisio inplizituak kudeatutako batez besteko ondarearen %0,175 dira.

# Egoera balantzea

2009ko abenduaren 31n, mila eurotan

## AKTIBOA

Ibilgetua	<b>636</b>	Funts Mutuala	<b>15.911</b>
Inbertsioak	<b>893.562</b>	Aktiboentzako Ondarea	<b>772.475</b>
Hainbat zordun	<b>4.657</b>	Pasiboentzako Ondarea	<b>34.051</b>
Diruzaintza	<b>789</b>	Hornidura Teknikoak	<b>9.522</b>
		Hainbat hartzekodun	<b>1.040</b>
		Emaitzak eta balorazio doikuntzak	<b>66.645</b>
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>899.644</b>	<b>PASIBOA GUZTIRA</b>	<b>899.644</b>


# Galdu-Irabazien kontua

2009ko abenduaren 31n, mila eurotan


## GASTUAK

Prestazioak, berrasegurua	<b>17.987</b>	Ekitaldiko kuotak	<b>90.695</b>
Administrazio gastuak	<b>1.754</b>	Inbertsioen sarrerak	<b>89.226</b>
Inbertsio gastuak	<b>25.168</b>	Arrisku Hornidura Soberakina	<b>2.557</b>
Eskubide ekonomikoen aldaketa	<b>72.208</b>		
Ekitaldiko irabazia	<b>65.361</b>		
<b>ZORRAK GUZTIRA</b>	<b>182.478</b>	<b>HARTZEKOA GUZTIRA</b>	<b>182.478</b>

## Ondarearen bilakaera



## Balio likidatiboaren eta errentagarritasunaren bilakaera



Partaidetza balioa 1996ko otsailaren 23tik 2009ko abenduaren 31ra, 6,01eurotatik 14,037741 eurotara garatu da.

## Finantza merkatuen ebaluaketa

2009ak berreskuratze finantzario baten hasiera markatu du, gaur egungo merkatu-operadoreek ezagutu duten krisi ekonomiko nagusienaren ondoren.

Urte hasiera ikaragarri baten ondoren, martxoaren hasieran, burtsek berreskuratze ekonomiko bertikal bat izan beharko lukeena aurreratu zuten, baina datu makroekonomikoek, nahiz eta hobetuz joan, horrelako bizkortze ekonomikoa ez dute adierazten, hurrengo ekitaldirako hazkunde oso moderatu bat baizik.

Urte hasiera, krisi finantzarioaren eta banku entitateen kaudimenaren beldur berrituz markatua egon zen. Goranzko hasiera harrigarri baten ondoren, beldurrek berriz eskuratu zituzten mundu osoko parketak, banku sektorearen berrí negatiboen ondorioz, enpresen albiste etsigarri eta datu ekonomikoekin elkarturik.

Baina martxoko hasieratik burtsek errebote ikusgarri bat hasi zuten V perfektu bat marraztuz, merkatu finantzarioen bilakaerari dagokionez. Urteko bigarren hiruhilekoan, jarduerari ekonomikoaren datuen narriararen balaztada ikusita, ziur aski atzeraldi ekonomikoaren lurzoria ikusi genuelaren mezua jaurti zen merkatura. Eta ISM (EEBBko manufakturaingintza erositaren inkesta bat da, herrialde honetan bilakaera ekonomiko orokorraren zainza eta aurreikuspen arruntaren erabilia) inkestean gutxiko hobekuntzak berreskuratze prozesu geldo baten hasiera antzematen zuten. Guzti hau, merkatuaren parte-hartzaileen arrisku-beldurra murriztaperen batera itzuli zen, zirkloan gehien murgilduta eta gehien zigortuak dauden sektoreak superraldi harrigarri eta azkarrak bideratuz, adibidez bankuak, matxalekoak, eta herrialde emergenteak zeinak suspertze ekonomikoan lehenak izango direla espero da.

Urteko bigarren aldiak, agente ekonomikoek erabiltzen zituzten suspertze itxaropenen hobekuntza baieztatu zuten. Etsipen txikiren bat ezeez, makro eta mikro datu ezagunetan joera orokorrean oparoaldikoa izan da. Bigarren hiruhilekoaren BPG-ren argitalpena bereziki nabarmena izan zen, herri batzuen atzeraldiatatik irteera baieztatu zuelako, hau da, Frantzia, Alemania eta Brasil, baina Espainiaren kasuan ez. Hirugarren hiruhilekoak BPG-ren datu baikor batzuk utzi ditu: Estatu Batuak +%2,2 hazi da eta Eurogunea +%0,5.

Estatu Batuetan azken asteetan argitaratutako datuek baieztatu dute iparramerikar ekonomia tinko haziko dela 2009ko laugarren hiruhilekoan, abenduko manufakturaingintza ISMek, 2008ko apiriletik 55,9ko maximo bat lortuz, BPG-ren %5,7aren hazkundearekin bateragarri. Amerikar enpleguaren birlakaerari dagokionez, azaroko aspaldiko hilaitez enpleguaren sortzaren lehen datua eman zuten, 4.000koa, baina gero abenduak errealtate gordinara itzuli gaitu, 85.000 lanpostu suntsitzean. Gutxienez moderazio argi bat ikusten da enpleguaren galeran. Nahiko argi dagoena da egiturazko langabezia ohituta geundena baino dezente handiagoa eta iraupen luzeagoa izango dela.

## Inbertsio zorroa

GEROA PENTISIOAK BGAEn kudeaketa-taldek egokitu egin du bere zorroaren dibertsifikazioa, eta, horretarako kontuan hartu ditu ekarpen berriak, errenta finkoko errentagarrian mailak, eta burtsa-merkatuen eta truke-merkatuen bilakaera.

2009rako Entitatearen helburu nagusia kapitala babestea zen, beraz zorroaren gehiengo Errenta Finkoan ezarrita egon da. Aktibo mota honen portiera onak arriskuak handitu gabe errentagarritasun ona lortzeko aukera eman du. Inbertsioaren batezbesteko portzentajea Errenta Finkoan %83,58 izan da.

Ildo bera jarraituz, Errenta Aldakorreko baloreetan inbertsio portzentajea maila murriztuetan mantendu da, inbertsioaren batezbesteko portzentajea %11,25rekin, nahiz eta burtsa merkatuen bilakaeraren ondorioz urteko azken hiruhilekoan Errenta Aldakorreko aktiboetan inbertsioa handitu %15,40raino.

Gainontzeko aktiboetan inbertsioaren batezbesteko portzentajek hauek dira, %2,47 Zuzeneko Inbertsioari dagokio, %1,81 higiezin inbertsioari eta %0,89 High Yield, Alternatibo, Bihurgarri eta Commodities funtsei dagokio. Errenta Aldakorrean egiten den inbertsioari dagokionez, %5,63 akzioetan gauzatu da, %4,76 Inbertsio Funtsetan, %3,60 Futuroetan eta %1,41 Duletan.

Entitateak zorroaren %2,08 ORZA AIE inbertitua du. GEROA PENTISIOAK BGAEn euskal enpresa alorreko sozietateetan inbertitzeko eratu zen entitatean %50ko partaidetza du. 2009. urtean zehar ORZAK 5 inbertsio egin ditu 6.748.160 €ko zenbatekoagatik.

Eurogunea, nahiz eta 2009ko azken hilabeteetan konfiantzazko inkestak hobetu, ezagutu diren azken makro datuak espero genuen baino pixka bat makalagoak izan dira, kontsumoaren eta lan-merkatuaren adierazleen ahultasuna nabarmenduz (inguruaren langabezia-tasa jadanik %10an kokatzen da, Estatu Batuetan bezala). Eta amerikarrek ez bezala, 2009ko azken hiruhilekoaren BPG-ren hazkundera oso apala da %0,1koa.

Errenta Finkoari dagokionez, bonu korporatibo eta publikoen jaukipenak 2009an hazkunde garrantzitsu bat eragin zuten. Finantza-entitateen partetik kreditu emate ezak enpresei bonuen merkatura jotzea finantzaketa lortzeko eragin zien, hasieran aspalditik ez ikusitako mailaetan, eta urtean zehar diferentzialak egokitu zirelarik minimo historikoak lortu arte. Estatuak hartutako neurriak, sistema likidezi bermatuz eta Gobernuen partetik bonu horien zati handi baten berresketak, arrisku-primak murrizten lagundu zuten eta beraz, hartutako bonuetan baikor eragiten.

Bestalde, Estatuak jasandako kostu handiek, Zor Publikoaren jaukipen handiak egitera bultzatu dituzte. Banku Zentral berdeberdinen jokoari dagokionez, politika monetario hedakor batera atxiki dira, interes-tasak gutxienezko historikora ino jeitsiaz, bai Erreserba Federal iparramerikararako (%0-%0,25) baita Eurokapo Banku zentralerakoak (%1a) ere, inntez kurben gorakada eraginez.

Tentsio inflazionista ezak eta ekonomia ahularen suspertze ardurak, iraunkorra izango ote den zalantzan jarriaz, bultzatzen dute, Ben Bernanke, Fedeko lehendakariaren hitzetan, "aparteko interes-tasa baxuak izan ditzagun epe luzean". Baieztapen honekin bat dator honen europar kide den Jean-Claude Trichet. Hala ere, nabarmendu beharra dago, banku zentralen neurri kuantitatibo hauen pixkanako baztertzek, moneta sistemaren likideziaren drainatze geldo bat eragiten duela.


Laburbilduz, ekitaldiko azkeneko aldiak, jarduera ekonomikoaren datuen kutsu positiboa eta berreskuratze geldia baieztatzen du. Honez gain, enpresen emaitzen hobekuntza agerian utzi du, nahiz eta momentuzkoen gutxitzeen ondorio izan eta ez sarreren hazkunderen ondorio.

Urteko azkenaldian, merkatuan arazoak agertzen hasi dira estatuak jasandako defizit publikoen ondorioz. Erregia Dubaiko ordainketa etendura posiblea izan zen, baina arriskua azkar hedatu da Eurogunea eta bereziki Grezia, Portugal, Irlanda eta Espainiara.

Bestalde, 2009ak beste eginbehar bat uzten digu 2010erako: lanpostuen sorrera. Ezinbestekoa eta premiazkoa da orokorrean lanpostuak sortzea, kontsumoa bultzatu eta krisi ekonomikoaren amaiera bultzatzeko, suspertze iraunkorra bermatuz.

Ekitaldiaren amaieran, inbertsio-zorroa 873,75 milioi eurokoa da, likidezia barne eta periodifikatutako eta kobratu gabeko interesak kontutan hartu gabe. Erakundearen inbertsio-zorroa baloratzeke erabili den irizpidea Arrazoizko Baliaoa da.

Orza AIE sozietatea honela baloratu da, kostu-balioa ken balorazio zuzenketen hornidurak gehi gauzatutako eta ez banatutako gainbalioak.



## Entitateko prestazio eta onuradunen bilakera

2009 urtean zehar 1.506 prestazio egin dira erretiroaren ondoriozkoak, 311 ezgaitasun osoaren ondoriozkoak, 205 ezgaitasun absolutuaren ondoriozkoak, 8 elbarritasun handiaren ondoriozkoak, 172 heriotzaren ondoriozkoak, 70 atzerapenen ondoriozkoak, eta 8 lan istripuaren ondoriozkoak.

Honez gain, 162 intsuldaketak egin dira erretiroaren ondoriozkoak, 1 ezgaitasun osoaren ondoriozkoa eta beste bat ezgaitasun absolutuaren ondoriozkoa.

Ordaindutako prestazioen guztizko zenbatekoa 17,99 milioi eurokoa izan da. Honez gain, ekitaldi berean, errentegatik hartutako konpromisoa 5,37 milioi eurotako izan da.

Ezgaitasun edo heriotzaren ondorioz guztira ordaindutako edo hitz emandako prestazioetatik, 453 prestazioek estaldura osagarria izan dute, guztira 8,65 milioi eurokoa. 284 kapital gisa ordaindu dira, eta gainerako 169ak bihurtzeko errenta gisa eta finantza-errenta gisa ordaindu dira. Abenduaren 31n, 1.615 bihurtzeko errenta bizi zuden eta 25 finantza-errenta.

Entitateko Gobernu Batzordeak, 2002ko Abenduan bihurtzeko errenten arriskurako hornidura bat osatzea erabaki zuen, konpromisoen %25ean ezarritz horniduraren zenbateko gehiena. Ildo honetan, 2009an zuzkidura 1,36 milioi euro izan da, hornidura osoa 8,87 milioi delarik.

## Entitateko estatutu eta arautegiaren aldaketa

2009ko Martxoaren 27an ospatutako ohiko Batzar orokorrean Entitateko Arautegiaren aldaketa onartu zuen. Aipatutako aldaketa Eusko Jaurlaritzak 2009ko Maiatzaren 12an onartu zuen.

Aldatu diren artikulua hauek dira:


- 5.1. Artikulua. Irteera mugimenduak.
- 5.2. Artikulua. Sarrera mugimenduak.
- 9.2. Artikulua. Kobratze modua.
- 10.4. Artikulua. Ordainketa modua.

Entitateak 2009an haren aktiboen balioespeneren irizpidea aldatu du, Arrazoizko balioaren irizpidea ezarritz. Esandako aldaketa, alde batetik merkatuen ziurgabetasunak eragin du eta bestetik, 2008an Kontabilitate Plan Orokorra berriaren sarrerak, eta derrigorrez 2010ko urtarillaren 1etik indarrean diren 92/2007 Dekretuaren balioespeneren irizpide berriak. Irizpidearen aldaketa honek Entitateko egoera balantzean agertzen diren 1,284 milioi euroko irabaziaz sortu ditu.



Errenta horiei aurre egiteko GRM/F- 95 taula aktuariarak erabili dira, %4ko interes-tasa teknikoarekin. Kontzeptu horren ondorioz konpromisoak 34,51 milioi eurokoak dira, Biharko, Consultoria de Fondos de Pensiones y Entidades de Previsión Social Voluntaria, SAK baloratu dituelarik. Bestalde, ekitaldian errenta finantzario moduan hartutako konpromisoak 0,31 milioi eurokoak dira.

Bestalde, entitateko onuradun kopurua 1.640 da.



## Altak, bajak, intsuldaketak eta mobilizazioak

Lehen aipatu den bezala, 2009. urtean zehar hiru enpresa berri baneratu dira; Bidelan, Talleres Protegidos Gureak eta Kemen Manguitos.

Bestetik, 164 irteera intsuldaketak kontingentziaren ondorioz izan dira eta etenik dauden bazkideen 19 irteera intsuldaketak. Sarrera intsuldaketarik ez da jaso.

## Ekitaldiaren itxieratik gertaera aipagarriak

2010ko urtariletik, Euskadiko Aurreikuspen Entitateen Federazioarekin arrisku prestazioen ordainketa estaltzeko berraseguru-kontrata berri du. Urte berrirako polizaren zenbatekoa Entitateko ekarpen guztien %6an mantentzen da. Kostu honen %50 GEROA PENSIOAK BGAEk gain hartzen du.

2010. urtean zehar Eusko Jaurlaritzak BGAEentzat argitaratutako kontabilitate ildoan ezarritako kontabilitate arauak egokitu dira, beraz Entitateko Estatutuak aldatuko dira.